



SEGURAKO UDALEKO IREKIAK 2024

BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

2024ko UDALEKU IREKLetan hezitzaile lanetan aritzeko deialdia luzatzen dizuegu. Hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko irizpideak** honako hauek dira:

- 1) 16 urte beteta izatea 2024ko ekainaren 30ean.
- 2) Euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea.
- 3) Mutiloa, Segura edo Zerainen erroldatuta egotea.

Behin, aurrez aipatutako baldintzak beteta, aukeraketa puntuazio gehien dutenen artean egingo da:

- 18 urte beteta izatea (2 puntu)
- HABE 3. Maila C1, EGA edo baliokidea izatea (2 puntu)
- Seguran erroldatuta egotea (2 puntu)

Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea: magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte-hezkuntza, gizarte integrazioa...

- Gradua izatea (6 puntu)
- Goi-maila izatea (5 puntu)
- Erdi-maila izatea (4 puntu)
- Begirale titulua izatea (6 puntu)

* Aipatutako ikasketak burutzen aritzeak titulazioaren puntuazio erdia balioko du.

Kontuan hartuko diren beste puntu batzuk:

- Herriko Gaztelekuan, antolakuntza eta koordinazioan partaide izatea (6 puntu)
- Segurako udako aisialdian aurretik aritu izana (3 puntu)
- Herriko haur eta gazteen gainontzeko aisialdiko ekintzetan parte-hartzen dutenak (2 puntu)

Lanean hasterako **Udalak antolatutako lan-aurreko formakuntzak osotasunean jaso eta gainditu beharko dira.**

***Berdinketa kasuan, Seguran erroldatuta dagoenak lehentasuna izango du. Segurako artean berdinketa balego, zozketa egingo da (grabatuta).**

Izen-emateko bidali curriculum-a gazteriasegura@gmail.com helbidera, maiatzaren **24rako**. Aurkeztu beharrekoak: curriculum-a, titulu edo agiriak, NAN eta osasun txartela. **Aukeratuen zerrenda ekainaren 7an jakinaraziko da whatsapp bidez.**